

.....

**EUSKAL ERKIDEGO AUTONOMOKO
GARAPEN LANKIDETZAN
INGURUGIRO ALDAGAIA
BARNERATZEAREN GAINEN
AZTERKETA**

bakeaz
↑

Ikerketa-lana babestuta:



2009

.....

© Florent Marcellesi eta Amaia Unzueta, 2009
© Bakeaz, 2009

KOORDINAZIO ETA GAINBEGIRAKETA: Florent Marcellesi
ELKARRIZKETAK ETA IDAZKUNTZA: Amaia Unzueta

Ikerketa-lan hau Bizkaiko Foru Aldundiko Diputatu Orokorraren Herritarron Eskubide eta Berdinatsunaren Zuzendaritza Bulegoak babestua burutu da.

1. Sarrera	4
2. Ikerketa-metodologia	6
3. Ikerketaren emaitzak	8
3.1. Garapen- eta ingurugiro- Gobernu Kanpoko Erakundeak (G.K.E.)	9
3.2. Administrazio publikoak	22
1. ONDORIO-TAULA: Elkarrizketaturiko G.K.E.-n eskarmentua ingurugiro- eta garapenerako lankidetzaren esparruetan	12
2. ONDORIO-TAULA: Ingurugiroaren gaian lankidetzaren eragileen prestakuntza, garapen G.K.E.-n ikuspuntuan oinarriturik	13
3. ONDORIO-TAULA: Garapen G.K.E.-n ikuspuntutik, garapenerako lankidetzaren plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, Euskadi mailan bereziki	14
4. ONDORIO-TAULA: Garapen G.K.E.-ek garapen-proiektuetan ingurugiroaren aldaera egoki eta zuzen hartzea kontuan	16
5. ONDORIO-TAULA: Garapenerako lankidetzaren iraunkortasunaren barneraketa bermatzeko proposamen eta gomendio nagusien laburpena	20
6. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoen ikuspuntutik, garapenerako lankidetzaren plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, Euskadi mailan bereziki.....	24
7. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoek garapen-proiektuetan ingurugiroaren aldaera egoki eta zuzen hartzea kontuan	27
8. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoek egindako garapenerako lankidetzaren iraunkortasunaren barneraketa bermatzeko proposamen eta gomendio nagusien laburpena	29

1. Sarrera

Txosten hau 2008.urtean Bakeaz elkarteak hasitako "La variable ambiental en la cooperación al desarrollo: potencialidades para su incorporación en el diseño de proyectos de cooperación al desarrollo" delako¹ ikerketa egitasmoari lotzen zaio. Proiektu honen sorburu ingurugiroaren iraunkortasun eta garapenerako lankidetzaren arteko lotura ezan datza. Hots, ingurugiro-agenden *giza garapen eramangarri* bezalako nozioen hedapena egon arren, bi indar hauek batuta lantzen dituen ekintza zehatz eta politiken gauzatze errealen falta aurkitzen dugu. Zentzu honetan, garapen prozesuak iraunkortasunaren ildotik aztertu behar liratekeela onarturik, bi arlo hauen arteko loturetan sakonduko duen marko teorikoa ikertzeari ekin nahi diogu Bakeaz-ek. Ez hori soilik, interrelazio hau bermatzen duen marko politiko eta legala aztertu eta garapenerako lankidetzan praxian eransteko ingurugiro-irizpideak bilatu nahi da. Honek guzti honek Euskal Erkidego Autonomoko² garapenerako lankidetzaren eragile aktiboen arteko elkar ulermena ahalbideratzea du azken xedea, euskal lankidetzaren proiektu, egitasmo eta proiektuetan iraunkortasun- irizpideak zabal daitezen.

Horretarako egitasmoa bi fasetan garatu da:

- **Lehenengo fasea:** EAE, Estatu eta internazional maileri dagozkien garapen eta iraunkortasun kontzeptuen marko politiko eta legala burutzea. Horrez gain, lankidetzaren eragile eta politiketan ingurugiroaren iraunkortasunaren sarpenan lehenengo urratsak ematea izan dugu helburu. Lehenengo fase honen emaitzak Florent Marcellesi e Igone Palacios-ek egindako "Integración de consideraciones de sostenibilidad en la

1. "Garapen lankidetzan ingurugiroaren aldaera kontuan hartzea: garapen lankidetzaren proiektuetan barneratzeko aukerak" euskaraz.
2. E.A.E hemendik aurrera.

cooperación para el desarrollo” (Bakeaz, 2008)³ deritzon lanean jaso ditugu. Gaztelaniazko bertsioan:

<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/116-integracion-cons>

Eta euskaraz :

<http://www.bakeaz.org/es/publicaciones/mostrar/119-iraunkortasunari>

- **Bigarren fasea:** ingurugiroaren iraunkortasunaren barneratzeari zuzenki lotutako euskal lankidetzaren azterketa burutzea, praktikara eramateko aferaren mugak eta aukerak aztertuz.

Beraz, lan honek EAE-n garapen-lankidetzako lanean oso aztergai egon ez errealitatea islatzea luke asmo, giza garapen iraunkorra lor dadin lankidetzaren sistemaren gabeziak antzematen lagungarri gerta dakigun oinarritzko lan tresna eskainiz.

3. “Iraunkortasunari buruzko gogoetak garapenerako lankidetzan sartzea”.

2. Ikerketa-metodologia

Miatze-helburua duen lan hau 2008ko apirila-maiatza bitarte egindako proiektuaren bigarren fasearen emaitza da. Horretarako, eztabaida-talde eta eragile publiko zein pribatu zenbaiti egindako elkarrizketetan oinarritutako metodologia kuantitatiboa erabili da.

Guztira hamabi elkarrizketa egin ziren, hurrengo erakudeen ordezkariari:

- **Administrazio publikoak:** Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetza- Zuzendaritza, Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza eta Hiritartasun Arloa, Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza-eskubideen Zuzendaritza eta Euskal Fondoa.
Ikerketan parte hartzen duten administrazio publikoak aukeratuak izan dira euskal administrazio publikoaren hiru mailek (autonomikoa, forala eta tokikoa) parte har dezaten. Era berean, Euskal Fondoa hautatu zen, Euskal tokiko-erakundeek dituen lankidetze deszentralizatua koordinatzeko eta bultzatzeko tresna-erakundea izateagatik.
- **Garapen Gobernu Kanpoko Erakundeak⁴:** Unesco Etxea, Mundubat Fundazioa, Mugarik Gabe, Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua-Hegoa, Mugarik Gabeko Ingenieritza eta Euskadiko GGKEen Koordinakundea.
G.K.E. hauen hautapena bi irizpidetan oinarritu zen: (a) Lankidetza arloan izandako ibilbidea eta (b) elkartearen lan arloa, gauzatzen dituzten proiektu motaren arabera ingurugiroarekin lotura handiagoa dutenak lehenesten.
- **Ingurugiro G.K.E.:** Ekologistak Martxan elkarte. Elkarte hau hautatu zen, ekologia zorraren inguru egindako lana dela eta.

4. G-GKE hemendik aurrera.

Elkarrizketak gidoi bati jarraiki egin ziren (Ikus 1. eranskina). Gidoiau berau gogoeta bideratzeko aurretik erakunde guztietara bidalia izan zen. Hurrengo gaiek elkarrizketak egituratu zituzten:

- Erakundeak duen garapenerako iraunkortasun eta lankidetzaren ezagutza.
- Eragilearen ingurugiro-lankidetzaren ezagutza.
- Garapenerako lankidetzaren plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, Euskadi mailan bereziki.
- Garapenerako lankidetzaren proiektuetan iraunkortasuna kontuan hartu izana.
- Ingurugiro arloan lankidetzaren trebakuntzak eta ingurugiro iraunkortasunean trebakuntzak.
- Garapenerako lankidetzaren ingurugiroaren iraunkortasuna aintzat hartu dadin gomendioak eta proposamenak.

Aurtengo ekainaren 2-3 egunetan, Bakeaz eta Unesco Etxea erakundeek antolatutako "Nazioarteko lankidetzaren, iraunkortasunaren eta ingurugiroaren" trebakuntza jardunaldietan eztabaida-taldea gauzatu zen. Orotara lankidetzaren arloko alderdi ezberdinetako (G-G.K.E-ko teknikoak, nazioarteko lankidetzaren gaineko masterren ikasleak) zein ekologia munduko hamabost lagunek hartu zuten parte.

Eztabaida hurrengo galderen inguruan eratu zen:

- Zeintzuk lirateke pobrezia eta ingurugiroaren arteko loturak? Eta garapenerako lankidetzaren eta ingurugiroaren artekoak?
- Zer egin beharko lukete ingurugiroaren iraunkortasun handiagoa lortzeko garapen-lankidetzaren eragileak?

3. Ikerketaren emaitzak

Gaiaren izaera eta egindako elkarrizketen kopurua aintzat harturik, E.A.E.-n garapen lankidetza egitasmoetan ingurugiro iraunkortasuna irizpide hartzearen aukerak eta mugak aztertzen ahalegindu gara, beti ere, lan hau oinarrizko hurbiltze hutsa delarik.

Txostena elkarrizketa gidoiaren arloei jarraituz egituratu da:

- Erakundeak duen garapenerako iraunkortasun eta lankidetza arloen ezagutza.
- Eragileen ingurugiro-lankidetzaren ezagutza.
- Garapenerako lankidetza plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, Euskadi mailan bereziki.
- Garapenerako lankidetza proiektuetan iraunkortasuna kontuan hartu izana.
- Ingurugiro arloan lankidetzan trebakuntzak eta ingurugiro iraunkortasunean trebakuntzak.
- Garapenerako lankidetzan ingurugiroaren iraunkortasuna aintzat har dadin gomendioak eta proposamenak.

Era berean, emaitzak aurkezterakoan eragileen izaera irizpide izan da, garapen eta ingurugiro G.K.E. eta administrazio publikoak bereiztu direlarik.

3.1. Garapen- eta ingurugiro- G.K.E.

Erakundeak duen garapenerako iraunkortasun eta lankidetzaren arloaren ezagutza.

Oro har, G-G.K.E.-ei dagokienez, ingurugiro iraunkortasuna plan estrategikoen ekintza-ardatz nagusia ez litzatekeela esan genezake. Gai honen barneratzea zeharkakoa izan da; izan ere, aurrerago azalduko den moduan, barneratze egokiak zailtasunak ekartzen ditu. Ondoren, labur azalduko da erakunde bakoitzaren nondik norakoak.

Alboan

Toki-ekonomia eta ekoizte prozesuak sustatzeko lan-ildoak, hein handi batean, komertzializazio ekoizte-garapen eta elikadura-subirotasuna lortzeko proiektuen bidez ingurugiroaren ardatza hartzen du kontuan elkarte honek. Elikadura-subirotasuna bideratzeko proiektuak, eurekin lan egiten duten komunitateen baliabide naturalak kudeatzeko strategiari lotuak daudenak, nabari dira. Halaber, heziketa eta sentsibilizazio lanetan zeharka lantzen da ingurugiroa, eskubide eta betebeharren ikuspuntutik, hain zuzen ere: ingurugirorako eskubidea eta berarekiko jardura arduratsuak onartzeko betebeharra.

Ingurugiroaren alderdiari dagokionez, barne-mailan lankidetzaren eta esku-harman proiektuetan baino prozesu sakonagoa gertatu da.

Mundu bat

Elkarte honen estrategia orokorrak (2006-2009) garapen endogeno eta partehartzailea bilatzen du, tokiko-barne hazkundearen hautabide gisa; honela, baliabide endogenoen erabilera iraunkori eta eraginkorraren bidez, kanpo menpekotauna gainditzen delarik. Beraz, garapen endogeno eta partehartzailearen bitartez giza-garapen iraunkorra lortu nahi liteke, ingurugiroa zeharkako ardatza legez aintzat hartuz. Era berean, ekologia-dimentsioa ekintzen iraunkortasunerako irizpide orokorren III.3 puntuan aipatzen da:

“Planteamos como un reto la puesta en marcha de acciones que sirvan, a medio y corto plazo, para que la población se nutra de los instrumentos ideológicos y materiales necesarios para una gestión sostenible de los recursos naturales de su entorno. En este sentido, nuestras acciones deberán insertarse también en políticas ambienta-

listas ya en marcha, reconocidas y avaladas por las instituciones públicas”.⁵

Zehazki, komunitatearen garapena helburu duten hiru proiektu burutu dituzte. Aldi berean, ingurugiroaren arloarekin zerikusia duten bi ekintza-ardatz gehituak lirateke:

- Ekoizte eta ekonomia prozesuak: elikadura-subirotasuna eta tokiko-ekonomiak
- Gune naturalen kontserbazioa

Hegoa

Erakunde honen lan-ildo nagusiak hiru lirateke: heziketa, irakaskuntza/iker-keta eta aholkularitza. Hauetatik guztietatik ingurugiroa soilik irakaskuntza/iker-keta ildoak kontuan hartzen du, doktorego eta master mailan iker-keta ildo ofizial ezarri baitute. Haatik, ingurugiro eta garapen gaien gaineko ikerketarik ez da aurrera eraman oraindik. Ildo hezitzaileari dagokionez, bestalde, master eta doktorego programek garapen eta ingurugiro-iraunkortasunari buruzko modulatorik ez da. Orobat, aholkularitza proiektuek tokiko-garapena lehenesten dute, ingurugiro-ardatza zeharka aintzat hartu arren. Izan ere, bitartetzat arloak hauek dira: Kubako elikadura-subirotasunaren arloa eta Saharako gobernuko administrazio-langileei zuzendutako prestakuntza arloa. Prestakuntza honek lankidetzari heltzen dio eta ingurugiro eta uraz (birziklapena eta hondakinen tratamendua) formazio zehatza ere eskaintzen du. Laburbilduz, Hegoaren lankidetzat estrategia tokiko-garapenaren esparruan koka liteke eta ildo honen barruan, zeharkako ardatz gisa, ingurugiro iraunkorra kontuan hartzeko beharra egokituko genuke.

Mugarik gabe

Organizazio honek bi ildo estrategiko nagusi ditu: biztanleri indigenarekin lankidetzat ta emakumeen komunitate-organizazioa babestea. Ingurugiroari dagokionez, kontsumo arduratsua gai gisa hartzea heziketa eta sentsibilizazio lanetan erronkarik handiena izan da. Barne-maila eta organizazio-politikan lankidetzat eta esku-harmen proiektuetan baino gogoeta sakonagoa gertatu da, gai honen inguruan. Alderdi ekologikoa kontuan hartuz egindako nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenari gaineko bi proiektu nagusi dira. Gainerako proiektuak eragite politikoa lortzeko lanarekin bat datoz. Izan ere,

5. Epe labur zein luzean poblazioak bere inguruko baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra burutzeko beharrezko ideologia-tresnak eta gaiak izan ditzaten ekintzetara jotzea erronkatzat hartzen dugu. Zentzu honetan, instituzio publikoek babestutako ingurugiro-politikan sartu beharko lirateke geure jarduerak.

azken hauek ingurugiroa zeharkako ardatz gisa erabiltzeko oztopo gehiago dituzte.

Mugarik Gabeko Ingenieritza⁶

E.A.E.n garapenerako heziketa eta sentsibilizazio ditu xede taldeak. Elkartearen izaera dela eta, bere proiektu guztietan ingurugiroaren ardatza lantzen da. Proiektu hauek giza garapenera lortzeko teknologien arloa garatuko luke. Esate baterako, garapen, lankidetzeta eta teknologiari buuzko jarduera hezitzaileak eta energia berriztatzaileen inguruko gaiak ere badituzte.

Euskadiko G.-G.K.E.-en Koordinakundea⁷

Bere plan estrategikoak ez du ingurugiroaren ardatza kontuan hartzen eta momentura arte gaiaren gaineko jarrerarik ez legoke. 2008ko expo Zaragoza dela eta ura giza eskubidea dela defendatzeko heziketa eta sentsibilizazio esperientzia zehatzak egon dira. G.G.K.E.-en kideen artean, UNESCO Etxea izan da bakarra ingurugiroa lantzeko lantalde bat osatzeko beharra ikusi duena. Beti ere, Estatu mailako Ura, Aldaketa Klimatiko eta pobrezia lantaldeen kide den bezainbatean.

UNESCO Etxea

Iraunkortasuna eta ingurugiro arloa du eta bere ekintza-lerro nagusiak hauek lirateke: bioaniztasuna eta ingurugiro-heziketa, ura eta garapena, eta aldaketa klimatikoa eta garapena. Informazio-, sentsibilizazio-, eta hedapen-esparrutik, garapen lankidetzeta ikastarook eskaintzen dira. Ikastaro hauek garapen eta ingurugiro modulo bat badute.

Ekologistak Martxan

Lankidetzeta arloan duten eskarmentua zor ekologikoari buruzko ikerketan eta sentsibilizazioan datza. 2006.urtean Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, zor ekologiko kontzeptuari buruzko ikerketa-lan bat hasi zuten, proiektu honek 2010.urtera arte iraungo duelarik. Proiektuak E.A.Eko energia-eredua ikertu nahi du batetik eta bestetik, hiru herrialdetan ingurugiroan lukeen eragina ere neurtu nahi du. (Herrialdeak Nigeria, Ekuador eta Bolivia lirateke). Organizazio-estrategiak garapen-lankidetzeta langaitzat hartzen ez badu ere, bai lantzen da Iparraldeko herrialdeek hegoaldeko herrialdeekiko duten zor ekologikoz (energia-eredua eta egindako eragina direla eta) hezitzen eta sentsibilizazio kanpainak egiten.

6. Ingeniería Sin Fronteras gazteleraz

7. Coordinadora de O.N.G.D. de Euskadi gazteleraz.

1. ONDORIO-TAULA: Elkarrizketaturiko G.K.E.-n eskarmentua ingurugiro- eta garapenerako lankidetzan esparruetan.

Erakunde gehienak ez du garbi ingurugiroa zeharkako ardatz gisa izan euren lankidetzan.

Zentzu honetan parteharman gidatzen eta orientatzen duen ekintza-marko komunik ez dagoela adieraz dezakegu. Lan egiten den komunitateetan sortzen diren egoera zehatzei erantzuten da entitate babesle zenbaitek eskatuta ere. Adibidez, Europar Batasuna.

Ingurugiroa ardatz gisa onartu duten proiektuak, gehien bat, tokiko- ekoizte- eta ekonomia- prozesuei atxikitutakoak dira, elikadura-subirotasunari dagokiona, hain zuzen ere.

Heziketa eta sentsibilizazioa dira ingurugiroa lantzeko aukeratu dituzten esparruak.

Zuzenki sentsibilizazio jardueren bidez (Gaiak: ura eta garapena, kontsuno arduratsua, aldaketa klimatikoa, energia berriztatzaileak) edo gaiari buruzko moduloak dituzten heziketa jardueren bidez. Nabari da Ekologistak Martxan erakundeak duen zor ekologikoari buruzko sentsibilizazio-proiektua.

G.-G.K.E.-en barne funtzionamendua.

Gogoeta sakona gertatu da barne mailan ingurugiroaren aldagaia kontuan hartzeko asmotan. Zenbait kasutan ardatz hau aintzat hartzen duen barne-politika gauzatu egin da.

 **Ingurugiroaren gaian lankidetzan eragileen prestakuntza.**

G.-G.K.E.-en lantaldeen formakuntzari dagokionez, UNESCO Etxea-k eta Mugarik Gabeko Ingenieritza-k izan ezik, gainerako elkarteek ingurugiro arloan oso formakuntza gutxi edo eskasa dute. Kasu gehienetan jasotako formakuntza puntuala izan da, ingurugiroa landu beharreko gaia izanik. G.-G.K.E. gutxi ingeneritza, arkitektura eta ingurugiro-arloko masterra duten partaideak dituzte, baina zaila egiten zaie euren proiektuetan arlo hau kontuan hartzea. Institutu Hegoa elkatea aipa daiteke; alde batetik, bi arlotan jantzitako kide kopuru gutxiagatik; bestaldetik, formatutako ki-deek arlo biak sustatzeko duten denbora faltagatik.

Lankidetzan eragileen prestakuntzaz, oro har, jakintza eta gaitasun faltan bat dator galdetutako oro. G.-G.K.E.-ek garapen eta ingurugiroaren arteko

harremana gero eta argiago badute ere, arlo honetan formakuntza falta dutela onartzen dute eta administrazio publikoen laguntza eskatzen da hutsune hau betetzeko. Ingurugiro eta lankidetzaren arloak lantzean aldaketa klimatikoa litzateke gehien aipatzen den gaia, honek lankidetzaren ingurugiroaren iraunkortasuna kontuan hartzea suposatzen duelarik. Era berean, ikerketa-institutu espezializatuak ingurugiro eta garapenaren gaiak elkarrekin ez dituzte lantzen, garapenerako eta iraunkortasunerako lankidetzari buruzko diskurtso eza ezarri duena. Honela, erakunde ekologisten lantaldeek garapenerako lankidetzaren jantzitako kide gutxi lukete.

G.-G.K.E.-ek ingurugiroan jantzitako kide-falta onartzeaz gain, eragin-arlo orotan adituak izan ezin direla ere azaldu egiten dute. Hots, elkarriketatutako pertsona baten hitzak gureganatuz "G.-G.K.E.-ak *denalogoak* ez dira". Ildo horretatik, G.-G.K.E. zenbaitek ingurugiroan espezializatutako institutu eta organizazioekin estrategia-loturak ezartzeari ekin diote. Esate baterako, Mundu Bat G.-G.K.E.-a Kataluinako Baso- Zentro Teknologikoarekin lanean hasi dira, gune naturalen kontserbazioa bilatzen zuen proiektu batean elkarrekin aritu ziren geroztik.

Hau guzti hau kontuan hartuta, elkarriketatutako organizazioek proposamen hainbat egin dute, formakuntza eta espezializazioaren hutsunea betetzeko asmoz. Proposamenak 2. ondorio-taulan bildu ditugu:

2. ONDORIO-TAULA: Ingurugiroaren gaian lankidetzaren eragilearen prestakuntza G.-G.K.E.-en ikuspuntutik.	
Administrazio publikoek formakuntza eta ikerketa bultzatzea.	Administrazio publikoek ingurugiroari dagokio formakuntza bultzatu eta sustatu beharko lukete, garapenerako lankidetzaren eragileengan hausnarketa bila eta gaitasunak sor daitezen.
Aliantza estrategikoak sustatzea.	G.-G.K.E.-ek garapen-eredu bera duten eta ingurugiro arloan adituak diren erakundeekin harreman estrategikoak bilatu eta eratu beharko lituzkete. Ekologia-organizazioek garapen-lankidetzarako planetan iraunkortasuna aintzat hartzeko gida-praktikoak egin ahal dituzte ikerketa-institutuen eta G.-G.K.E.-ekin lankidetzan.

Garapenerako lankidetza plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, EAEaren mailan bereziki, G.-G.K.E.-en ikuspuntutik.

E.A.E. mailan, lankidetza plan eta politiketan ingurugiroa ez da nahiko eta egoki kontuan hartu, genero eta giza- eskubideen alderdiei lehentasuna ematen zaiela azpimarratu behar dela. Euskal lankidetza-politikak ingurugiroarekiko instituzio-sentsibilitatea islatzen du, 2008-2011 Zuzendari-Planan jasotzen baita. Hala ere, iraunkortasunarekin batera lankidetza parteharrena gidatuko luketen ildo argiak ez egotea salatzen dute. Lankidetza plan eta politiketan ingurugiroa aintzat hartzeko eraz iritzi anitzak bildu ditugula adierazi behar da. Batzuek gai honen zati-dimentsioa lehenesten dute, lehenengo ekintza-arlo funtsezkoa bihurtzeko eta ondoren zeharkako ildo gisa izateko. Beste batzuek, ordea, lehen urratsetik zeharkako ildo bezala lehenetsi nahi lukete. Gainerakoek bi moduetan (ekintza-arlo eta zeharkako ildo gisa) kontuan hartu beharrean gaudela defendatzen dute.

Edonola ere, lankidetza plan eta politika publikoetan gai honek duen garrantzi eskasean bat datoz denak. Administrazio publikoen lankidetza eta ingurugiro arloen arteko kordinaketa falta zioa litzateke, elkarriketatuen aburuz. G.-G.K.E. hainbatek Espainiako lankidetza-politika aipatzen du, ingurugiroaren aldagaia kontuan hartu ezean, giza garapen iraunkorra lortzea eta interes politiko-komertzialak bateraezinak baitira litzateke. Ildo honi jarraituz, lankidetza deszentralizatuaren garrantzia aipatzen da. Izan ere, tokiko garapen endogenoa bultzatzea dezake eta hori abiapuntutzat hartuz, iraunkortasunarekin koherente litzateke lankidetza-lana sustatu.

Bestalde, G.-G.K.E.-en ingurugiroa gaiaren lege-esparruko jakintza falta ikusi da, UNESCO Etxea erakundearen kasuan izan ezik. Honek, gai honetan formazio eta espezializazio ezari lotuta, ingurugiroa lankidetza-politika eta planetan sartzeko gaitasun errealean eragina luke. Hala eta guztiz ere, politikak, ingurugiroari dagokionez, kontuan hartu beharreko gutxieneko irizpideak hauek lirateke (3. ondorio-taulan bildu ditugu):

3. ONDORIO-TAULA: Garapenerako lankidetza plan eta politiketan iraunkortasuna kontuan hartu izana.

Ingurugiroa kontuan hartzea sektore zein zeharkako eran.

Tokiko garapen endogenoa ingurugiroaren garapen iraunkorra

Horrela, adibidez, Hegoaldeko komunitateek baliabide naturalen kudeaketaren garrantzia aipatzen da giza-garapen iraunkorra lortzeko oinarrizko ardatz gisa. Hau ekoizte-garapen proiektuak ingurugiroari dagozkion kabildeo-ekintza estrategikoekin batera burutzean datza. Parteharman sektore-

<p>bultzatzeko abiapuntua izan behar da.</p>	<p>area gisa elikadura-subirotasuna, energia berriztatzaileak, CO2ren jaurtiketen murrizketa, hondakinen gestio iraunkorra, e.a., gaiak aipatzen dira.</p>
<p>Hezkuntza eta sentsibilizazioa aintzat hartzea Iparraldeko herrialdeen garapen ereduaren eta bere ondorioen kontzientzia kritikoa sortzeko eta kontsumo-ohitura arduratsuak ere lortzeko.</p>	<p>Zentzu honetan hainbat G.-G.K.E-ek lehenengo barne-mailan eta norbanakoen ingurugirorekiko ohitura ez arduratsuak aldatzen hasi behar dela aipatzen dute. Behin hori lortuta, lankidetzan islatuko litzateke. Planteamendu hau Alboan G.-G.K.E-aren ordezkariak garapen-ereduak biltzeko modu gisa eko-bionomia aipatu zuen. Eko-bionomia gero planetaren administrazio egokia bilakatzeko lehenengo norbanakoaren etxea ondo administratzean datza.</p>
<p>Formazioa lehentasunezko ekintza gisa administrazio publikoen esku.</p>	<p>Ingurugiro eta garapenaren arteko erlazioan formazio teorikoa eta ingurugiroaren alderdian formazio teknikoa lehentasunezko ekintza-ildoak izan behar da eta administrazio publikoek sustatua izan behar da. Beti ere Iparraldeko zein Hegoaldeko lankidetzaren eragileen beharrezko gaitasunak sortzeko lagun dezan.</p>
<p>Komertzio- eta lankidetzaren politiken arteko koherentzia.</p>	<p>Honek dakar administrazio publikoen maila guztietan ingurugiro- politikarekin koherentzia eta koordinazio-beharra. Era berean, Hegoaldeko herrialdeen lege-eremuan eraginduko duen lankidetzaren politikan oinarritu beharra onartzen da, enpresa transnasionalek egiten dituzte lege kanpoko jarduerak saihesteko asmoz.</p>

 **Iraunkortasunaren barneraketa garapenerako lankidetzaren proiektuetan.**

Lehenengo zatian aurreratu dugun bezala, G.-G.K.E.-ek arazoak dituzte garapenerako lankidetzaren partehartzeetan ingurugiro-aldagaia sartzea bermatzeko. Ingurugiroa ekintza-ardatz oinarritzakoa nahiz erakunde hauen plan estrategikoetan zeharkako ardatza ez izateak bere sartzea bermatzeko praktika-orientazio eza dakar. (Inklusio hau identifikazio fasearen azken ebaluazio fasera burutzen diren proiektuetan eman beharko litzateke).

Ingurugiroaren gai epe laburrean oso premiazko diren beharren aurrean baztertzen da, batez ere ekintzen alderdi giza-ekonomikoa lehenesten da eta ez

da iraunkortasuna kontuan hartzen. Ekoizpen lanasmoetan aditua den, G.-G.K.E. batek honela azaldu zuen, kooperatiba bihurturiko tokiko-eragileel bere gain ekoizpen nekazal- abeltzain-ekologikoaren %100 hartu ezin dutela adieraziz. Izan ere, ekoizpen hau momentuz ez da ekonomikoki errentagarria. Egoera horretan, ingurugiro iraunkorraren aldagaia kontuan hartuko balitz, erkatua haustuko litzateke. Hau, beharra denean lehentasuna, ezin da onartu. Hortaz, G.-G.K.E. honek ingurugiroaren aldagaia sartzea pixkanaka burutu behar dela uste du, poblazioaren biziraupena bermatuz.

Ingurugiroaren alderdiarekin zuzenago lotuta dauden proiektuetan hasita-koak, ekoizpen tokiko ekonomiaren garapen-proiektuek legez, eurek zein tokiko kontrazatiek ingurugiroaren iraunkortasuna kontuan hartuz egiteko dituzten ahuleziak onartzen dituzte. Haatik, lurrarekin bititza eta historia-loturatik sortutako indarguneak ere badaudela ere baieztatzen dute, komunitate Hajek ingurugiroa errespetatzen laguntzen duten ohitura-jarduerak dituztelarik. Hala ere, honek ez du esan nahi ohitura-jarduera guztiak ingurugiroaren ikuspuntutik egingarriak sirenik, ingurugiroa errespetatzen ez duten jarduerak asko baitira. Gakoa ohiturazko-jarduerak aztertzean eta ebaluatzean datza, ingurugiroa errespetatzen dituztenak identifikatuz eta aplikatuz.

Orobat, G-GKE-ek eta tokiko kontrazatiek ingurugiroarekin iraunkorrak diren eskuhartzeak egiteko aukerak metodologia eta lanabes zehatz ezak mugatzen ditu. Hala eta guztiz ere, zenbait G-GKE-k metodologia partehartzaileek lanasmoetan iraunkortasuna kontuan hartu beharraren kontzientziazioa susta dezaketela aldarrikatzen dute. Metodologia-mota hauek komunitatea bera eta beren gaitasunak handitzea xede dutela onartuz, lanasmoaren fase guztietan onuradun den poblazioarekin kontaktzea eskatzen da (faseak lirateke: diagnostikoa, diseinua, buruketa, jarraipena eta ebaluaketa). Horrela, metodologia hauek, nekazaritza- diagnostiko partehartzailearen kasuan bezala (ezagunagoa ingeles deituragatik: Participatory Rural Appraisal), bertako poblazioaren partehartzearen bidez ingurugiro-arazoei lotutako gizarte-arazoak identifikatzen laguntzen dute; beraz, lanasmoetan zeharka ingurugiro-ardatza ezartzea ahalbidera dezakete. Era berean, oinarrizko beharrak identifikatzeko teknikak erabiltzeko aukera ematen dute, horrela, marko logikoaren ikuspuntua bezalako ikerketa-metodo tradizionalei kontrajarriz.

Nola sar daitekeen ingurugiroaren ardatza garapen proiektuetan galdetu zaie elkarrizketatuei. Erantzunen artean atera diren proposamenak 4. ondorio-taulan bildu ditugu. Proposamen hauek, besteak beste, garapen-parteharmenetan ingurugiroa aintzat hartzen lagun dezakete, babesle-entitateek eskatzeko ohitura burokratikoa zokoratuz. Izan ere, lehen babesle-entitateen eskakizuna gisa hartzen zen, baina gehienetan ezin zatekeen gauzatu. Azkenik, abiapuntutzat hartzen den garapen-ereduaz hausnartzeko premia azpimarratu nahi da, garapen eta ingurugiroaren arteko erlazio banaezina dela argi izanda.

4. ONDORIO-TAULA: G.-G.K.E.-ek garapen-proiektuetan ingurugiroaren aldaera egoki eta zuzen hartzea kontuan.	
Lanasmooaren beharren identifikazio eta diagnostiko-fasean ingurugiroaren eragina, baita jarraipena eta azken ebaluazioa ere.	Proiektu-motaren arabera eragin-gradua ere aldatzen da, beraz, egiten diren diagnostiko eta ebaluazioak zehatzak izan behar dira. Partehartze bakoitzaren eragina neurtzeko gutxieneko adierazle zenbait behar direla adierazi da. Zehatzago esanez, hasierako diagnostiko zein azken ebaluaziorako baliabide zehatzak ezarri behar dira, batez ere ingurugiroari datzaizkio proiektuetan (azpiegitura, ekoizpen- eta ekonomia-prozesu, hondakinen gestioen lanasmootan, e.a.)
Tokiko-kontrazatiak ingurugiro-irizpideak nola lantzen dituen jakitea.	Lanasmoa gauzatu baino lehen, zein kontrazatiarekin burut daitezkeen partehartze iraunkorrak jakin behar da eta edozein kasutan, bi erakundeen arteko abiapuntuak diren ingurugiro eta garapen-konzeptuen inguruko gogoeta egitea komeni da. Honek ahalbidera dezake bi erakundeek iraunkortasuna organizazio-erronkatzat hartzea eta behin erronka gisa ulertuta, gauza dadin.
Erakunde bakoitzaren barne-azterketa burutzea.	Azterketa hau ingurugiro gaina zer egin eta zer ez den egin jakiteko burutuko da (bai sektore-areei bai zeharkako mailari begira). Hitz batean, erakunde bakoitzaren eskarmentua sistematizatu eta hausnartzeko.
G.-G.K.E.-ek euren esperientzien berri emateko lekuak ahalbideratzea.	Leku hauek ahalbideratuko lirateke hala ingurugiroari zuzenki lotutako lanasmootzat, nola zeharka sartu duten proiektuetzat. Euskadiko G.-G.K.E.-en Koordinakundea leku egokia litzateke, eta horretarako gai honetaz arduratuko den lantalde bat osatzea proposatzen da.
Ingurugiroan adituak diren organizazio eta institutuekin elkartasun-lotura estrategikoak ezartzea.	Ingurugiro-erakunde publikoek G.-G.K.E.-ei babes tekniko eman diezaieketela azpimarratzen da. Adibidez, UNESCO Etxeak AMVISA erakunde publikoa aipatzen du, ura eta saneamendu lanasmootan laguntza tekniko eskaintzen baitute.

<p>Proiektuen ekintzen ondorioz gertaturiko CO2-ren jaurtiketen ordaina.</p>	<p>Hots, proiektu zehatz batean egindako ekintzak direla eta zenbat CO2 jaurti den neurtzea, horren koste ekonomikoa kalkulatu eta kalkulaturako diru-kopuruarekin ingurugiroa babesteko ekimenak sustatzea. Horretarako, administrazio publikoek aurrekontuetan diru-irteera espezifikoak gehitu beharko lukete.</p>
<p>Ingurugiro ikuspuntuetarako metodologia partehartzaileak.</p>	<p>Tokiko-poblazioaren partehartzean oinarritutako metodologia eta ikuspuntuak hartu beharko lirateke aintzat. Eurretan oinarrituz, diagnostikoa, gauzapena eta jarraipena burutuko dira.</p>

 **Ingurugiro arloan lankidetzan trebakuntzak eta ingurugiro iraunkortasunean trebakuntzak.**

Ondoren ingurugiroari zuzenki lotutako garapenerako edota iraunkortasuna aintzat hartzen duten esperientziak aurkeztuko dira. Esperientzia hauek praktika egoki ala desegoki gisa baloratzeko, ikerketa-lana kontuan hartu da, honek berak proiektu bakoitzaren zehatzago eta sakonagoa den ebaluazioa eskatzen duelarik. Hala ere, positibotzat hartzen dira ingurugiroaren ardatza sektore zein zeharka pixkanaka sartzeko ekimenak, EAE-ren garapenerako lankidetzan, beti ere.

Alboan

Erakunde honen hegoaldeko politikan parte hartze prozesuak duen eskarmentua, ingurugiroaren ikuspuntutik, eurekin lan egiten duten komunitateen baliabide naturaleen kudeaketan bilakatu da. Esperientzia honen alderdi positiboa ingurugiroaren dimentsio politikoan dago, baliabideak kudeatzeko komunitateen mobilizazioa eta nekazal/abeltzain-bertako politikan irizpide ekologikoak gehitzea baitute helburu.

Era berean, tokiko ekoizpen- eta ekonomia-prozesuak sustatzeko proiektuen diseinua Tokiko Diagnostiko Partehartzailearen ikuspuntua erabiliz eginda, honek komunitateen lurraren eta baliabide naturalen erabilpenaren arabera diseinua ahalbideratu duena. Ikuspuntu honek ingurugiroarekin errespetuzko jarduerak identifikatzen lagundu du, jarduera hauek lanasmotan aintzat har daitezkeelarik.

Mundu bat

G.-G.K.E. honek lantzen ari garen arloan, ekoizpen- eta ekonomía- prozesuak eta gune naturalen kontserbazioa sustatzeko proiektuei buruz, formazio eta espezializazio falta azaleratzen dute. Euren lanasmotatik, Kataluinako Baso-

Zentro Teknologikoarekin batera egindakoa aipatuko genuke, euren artean sortutako lan-aliantza estrategikoari garrantzitsua deritzogu eta.

Mugarik Gabeko Ingenieritza

“Eguzki-sukaldea” deritzon programa azpimagarria da, izan ere, heziketa eta sentibilizazioa bilatzen ditu. Lanasmu honek energiaren garapen-ereduaren gaineko kontzientzia kritikoa sortu nahi du, baita energia berriztatzaileen hautabidea lantzea ere. Esperientzia hau nabari bada adibide zehatz bat aukeratu delako da. Hots, eguzki-sukaldez dihardu proiektuak eta giza-ekonomia- eta ingurugiro-arazoen arteko erlazioerakutsi nahi du, ingurugiro eta garapenaren arteko hartu-emanen gaineko gogoeta bultzatuz.

Ekologistak Martxan

Arestian aipatu dugunez, erakunde hau EHU-rekin batera zor ekologikoa aztertzen ari da. Ikerketa, beraz, garapenerako heziketa eta ingurugiroaren gaiak batzen ditu. Gure energia-ereduak Hegoaldeko herrialdeetako ingurugiroan eragina duela ikusteak enpresa transnacionalek bultzaturiko garapen-eredua kolokan jartzen du. Zentzu honetan, lanasmu honek garapen-ereduari buruzko kontzientzia kritikoa sortzeari egoki deritzogu. Izan ere, indarrean dagoen ereduaren eragina ikus daiteke eta horrek ingurugiroerako kontzientzia rduratsua sortzen laguntzen du.

UNESCO Etxea

Aldaketa klimatiko eta Garapenari buruzko proiektuak Hegoaldeko herrialdeentzat beroketa globalak suposa litzakeen ondorioak aztertu eta horren inguruko hezketa eta sentibilizazioa landu nahi ditu. Ekimen honen alde positiboa garapenerako lankidetzaren eragilearen formazio tekniko ematea da, ingurugiroaren arlo zehatz bat soilik lantzen bada ere, bi arlo hauen arteko erlazioaz hausnartzeko eta kontzientzia kritikoa sortzeko bidea ematen du.

Barne-politika instituzionalari dagokionez, erakundearen jarduerak eragindako CO₂-ren jaurtiketak nola oradaindu litzateke lanasmorik garrantzitsuena. Hots, erakundeek egindako jardueretan zenbat CO₂ jaurti den neurtu eta horren balio ekonomikoa kalkulatu da, diru kopuru hau ingurugiroari buruzko proiektuetan jartzen da, azkenik. Lanasmu hau EKOPASS ekimenarekin eta Green Belt Movement erakundearekin batera burutzen da. Kanpoko nahiz barneko funtzionamenduak kontuan hartu eta uztartzen dira honetan, koherentzia adierazgarri delarik.

UNESCO Etxeak Zabalketa G.-G.K.E.-k egindako proiektuak nabarmentzen ditu, besteak beste, lurraren ber-ordenamendu eta kudeaketa orokorra gaiak lantzen baitira.

 **Garapenerako lankidetzan iraunkortasunaren barneraketa bermatzeko proposamen eta gomendioak**

G.-G.K.E. gehiengoak uste du generoaren afera kontuan hartzeko erabilitako protokoloa eredutzat hartu beharko litzatekeela iraunkortasunaren kasuan. Jarraian, aurreko ataletan bildutako proposamen eta gomendioen laburpena duzue:

5. ONDORIO-TAULA: Garapenerako lankidetzan iraunkortasunaren barneraketa bermatzeko proposamen eta gomendio nagusien laburpena.	
Administrazio publikoek ardatz-lerro estrategikoak ezartzea.	Administrazio publikoek iraunkortasuna barneratu eta sektore- eta zeharka ingurugiroaren ardatza kontuan hartzeko norabide estrategiko argiak ezarri behar ditu, garapenerako lankidetzaren politika egokia definituz. Hau gerta dadin, garapenerako lankidetzaren eta ingurugiro-departamentuen arteko koordinaketa eraginkorra eta erreala izan behar da, bakoitzak dituen gaitasun eta baliabide berezkoiei atarramendua aterako litzatekeela.
Administrazio publikoek ingurugiro gaiaren gaineko formazio eta ikerketa bultzatzea.	Eragileengan gaitasunak sortzea eta gogoeta sakonagoa gertatzea dira helburuak. Teoria eta praktikaren arteko distantzia eteteko ikerketa eta formazioa ezinbestekoak lirateke. Hauen bidez ardatz hau aintzat egoki hartuko dela ere berran egin daiteke.
Tokiko-kontrazatiekin batera garapenerduaren gaineko gogoeta.	Garapen-estrategian iraunkortasuna kontuan hartzearen alde egin behar da eta ez proiektu bakoitzean egoerak eskatuta.
G.-G.K.E. eta gaian adituak diren pertsona eta erakundeen arteko harremanatzea.	Orobat, erakunde ekologistek G.-G.K.E. eta ikerketa institutuekin batera egin dezakete lan. Guztiek garapenerako lankidetzaren parteharman eta plan estrategikoetan ingurugiroa nola kontuan hartu azal dezaketen gida eta eskuliburu praktikoak egin ditzakete.
Esperientzien eta ezagutzaren elkar trukaketa.	Ingurugiro eta garapenerako lankidetzaren eagileen arteko informazio-trukaketa ahalbideratu. Horretarako koordinakunde plataformetatik lekuak sortu ahal dira (Euskadiko G.-G.K.E.-en Koordinakundea, kasu).

<p>Jada sortuta dauden tresna metodologikoei atarramendu egokia ateratzea.</p>	<p>Poblazioen eta tokiko-kontrazatien ahotsa entzutea ahalbideratuko dituzten tresnei atarramendua atera behar zaie, baita ingurugiroa zaintzen dituzten ohiturazko jardueri ere. Esate baterako, tokiko-biztanleriaren partehartzea bultzatzen duten ikuspuntu eta metodologiak.</p>
<p>Hegoalde-Iparalde lankidetzaren papera*.</p>	<p>Herri indigenek iparraldeko herrialdeei eginahal dieten ekarpena ezinbestekoa da. Betez ere, elkarrekin eta inguruarekin erlazionatzeko era ezberdinak ahalbidera litezke. Lan honen erakunde guztietatik, Mugarik Gabe eta Alboan dira hau gehien lantzen dutenak. Haatik, Hegoaldetik Iparraldera esperientzia praktikoak inkatzea zaila ikusten da, Hegoalde-Hegoalde lankidetzaren egingarriagoa dela pentsatuz.</p>
<p>Lankidetzaren eta komertzio-politiken arteko egiazko koherentzia.</p>	<p>Politika- eta komertzio interesen gailentasuna hautsi egin behar da. Horri erantzunez, giza-garapen iraunkorra sustatu behar da. Era berean, Hegoaldeko herrietan eragina izango duen lankidetzaren politika batean oinarritu behar gara, enpresa transnazionalak burutzen dituzten ilegaltasunak saihesteko asmoz.</p>

* "Hegoalde-Iparalde lankidetzaren ideiak Hegoaldeko herrialdeek Iparraldeko herrialdeei zuzen edo zeharka egindako ekintzak azpimarratzea Dakar. Gainera, Hajek modu egituratu eta ezagunean programatzeko eta indartzeko beharra azaleratzen du, normaltasunez eta maiztasun handiagoz gerta daitezkeen" Bakeaz-en "Iraunkortasunari buruzko gogoetak garapenerako lankidetzaren sartzeari" (Marcellesi, Palacios, 2008).

3.2. Administrazio publikoak

Euskadi mailan garapenerako lankidetza plan eta politiketan iraunkortasuna kontuan hartzea.

Lankidetza eta ingurugiro arloen eredu politikoaren ikerketa proiektu honen lehenengo fasean egin genuen Bakeaz Koadernoan bildu dugu. Horregatik, atal honetan alde batetik, gaiaren laburpena eta bestetik, erakunde publikoek ingurugiroa kontuan hartu dutenentz azaltzen duten zioak aurkeztuko dira.

Administrazio publikoen gaineko gogoeta honetan Euskal Fondoa erakundea gehitu dugu, tokiko- erakunde publiko anitz biltzen batu (EAEko 95 udal gutxi gorabehera) eta beraz, lankidetza deszentralizatuaren lankidetzaren aurrekontuen zati handia kudeatzen baitu.

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetza- Zuzendaritza

2008-2010 Garapenerako Lankidetzaren Estrategia- eta Zuzendaritza- Planak zeharkako lerro gisa aipatzen du iraunkortasun ekologikoa, bai garapenerako lankidetza, bai ekintza gizatiarretan, bai garapenerako heziketa-proiektuetan. Gainerako zeharkako lerroak (giza-eskubideak, generoa eta tokiko-garapena) sektore areak ere diren bitartean, iraunkortasun ekologikoa ez da sektore-area gisa onartzen. Era berean, plan honek iraunkortasunari dagokion irizpide bakarra aipatzen du, beste lerroek irizpide asko duten bitartean.

Lankidetza-Zuzendaritzaren esanetan, lanasmu honetan ingurugiroa kontuan hartzeko euskal lankidetzaren errealitatearen eta politika-lehentasunen arteko oreka beharrezkoa litzateke. Lankidetza- aurrekontuen %90 inguru G.-G.K.E.-en bidez bideratuz gero, erakundeek eurek lehentasunak finkatu beharko lituzteketela uste da. Zentzu honetan, G.-G.K.E.-en ingurugiro arloan formazio eta espezializazio faltak arloa sektore-area gisa hartzea oztokatzen du. Hortaz, Lankidetza-Zuzendaritzak Planean ingurugiroa egoki kontuan hartu dela uste du, arlo honetan lankidetza-eragileen egiazko gaitasunei erantzuten diete eta.

Bilboko Udaleko Berdintasun, Lankidetza eta Hiritartasun Arloa

2006-2009 Garapenerako Lankidetzaren Zuzendari-Planak iraunkortasun ekologikoa ardatz duten lankidetza-estrategiak sustatu behar direla azpimarratzen du. Zeharkako ekintza zehatz gisa aipatzen ditu: (a) energia eta baliabideen erabilera eraginkor eta burutsua, beti ere iraunkortasuna eta

garapen ekonomikoa batzen dituzten lanasmoen bidez, eta (b) ingurugiroalderdian formazioa eta sentsibilizazioa. Eusko jaurlaritzaren Zuzendari-Planean bezala ingurugiroak gainerako aldagaien aurrean garrantzia galtzen du: genero eta emakumeen boteretzea, tokiko-garapena eta instituzio-indartze lokala. Horrela, dirulaguntzen deialdien oinarriek iraunkortasun ekologikoa zeharkako lerroen baremazio-irizpide gisa dute (5 puntu). Aurkeztutako proiektuek iraunkortasun irizpidea egoki hartu ez dutela onartzen da.

Udaleko ingurugiro-lankidetzak Euskal Fondoa erakundearen ifuntsen bitartez burutu egin da. Erakunde honek Udaleko lankidetzaren funtsen %13a jasotzen du.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza-eskubideen Zuzendaritza

2009-2011 Foru Aldundietako Garapenerako Lankidetzak Zuzendari-Planak tokiko-giza garapena, genero-berdintasuna eta garapen heziketa ardatz ditu. Ingurugiroa ez da aipatzen ez sektore ez zeharka lerro gissa, teoria-mailan giza-garapenaren paradigmatik iraunkortasuna landu behar duela azpimarratzen bada ere. Era berean, Planak iraunkortasun ekologikoa garapenerako heziketa arloarekin lotzen du, egungo ekoizpen eta kontsumo eredu berrizko kontzientzia kritikoa bultzatzeko helburuz. Oraindik desagertu ez diren garapen-ereduen aniztasuna (herri indigenak) gorde eta berreskuratu nahi da. Hala ere, bi ideak azpimarratzen dira. Alde batetik, Foru Aldundiek politikaren gaineko gogoeta nahikorik ez dute egin; bestetik, G.-G.K.E.-ek gogoe-ta tekniko sakonagoa burutu behar dute. Azken finean, bi kasuetan, Planean iraunkortasun ekologikoa zergatik kontuan ez den hartu azaldu nahi da.

Ingurugiroaren aldagaiari emandako garrantzia eskasa izan arren, Bizkaiko Foru Aldundiko Dekretuak (2009) iraunkortasuna baremazio-irizpide gisa jasotzen du, 100 puntutik 3 emanez.

Euskal Fondoa

Euskal Fondoaren lankidetzak-estrategian ingurugiroa 1996. urtean barneratu zen. Harrezkero, lanasmu politiko-instituzionalak aldatuz joan dira, ingurugiroaren ardatza kontuan hartu arte; azpiegitura eta etxebizitza, ura eta saneamendua, eta oihantze proiektuetan bezala. 2009. urtean lanasmoen %68a oinarritzko azpiegituraren garapenarekin lotuta dago, %3a instituzio-indartzearekin eta %29a beste arloekin (generoa, hirugarren adina, ezintasuna, dirulaguntzak).

Hegoaldeko tokiko- gobernuek egindako eskaerak lankidetzak gidatu du, aldi berean, bilakaera hau gertatuz. Hegoaldeko tokiko- gobernuek oinarritzko

azpiegitura lehenetsi dute, batez ere ura-sistemak eta saneamendua). Haa-tik, eskaera honek ez ditu Iparraldeko tokiko-garapenaren ingurugiro-iraunkortasunaren irizpideak kontuan hartzen, arazoak konpontzea konpontzeko modua baino askoz beharrezkoagoa baita. Hau dela eta, Euskal Fondoak tokiko-gobernuekin hitz egin behar dela azpimarratzen du. Izan ere, euren eskaerari erantzuteaz gain, iraunkortasuna bilatuko duen erantzuna bilatu beharrean gaude.

Laburbilduz, ondorengo ondorioak azpimarratu nahi genituzke:

Iraunkortasun ekologikoa hiru Aldundietako Zuzendari-Planetan ez da ekintza- lerro estrategiko gisa kontuan hartu. Bere zeharkako-izae-ra lehenetsi egin da, praktikan jartzeko duen zaitasun-maila azpimarratuz.

Ingurugiroa dimentsio horizontalean kontuan hartu behar dela nabarmentzen da. Hala ere, orain arte ez egin izana azaltzeko bi arrazoi aipatzen dira: alde batetik, eragileek ingurugiro eta garapenaren arteko erla-zioaz gogoeta gutxi egin izana; eta bestetik, G.-G.K.E.-ek gai honen inguruan oso gutxi eskatu izana. Zentzu honetan, euskal lankidetzaren errealitatearen eta lehenetsun politikoaren arteko oreka gorde behar dela azpimarratzen da. Lehenengo gogoeta eta beharrezkoak diren gaitasunak sortu behar dira, ondoren berauek erabili ahal izateko.

Zuzendari-Planak eta politikek hurrengo gutxieneko irizpideak jaso beharko lituzkete:

6. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoen ikuspuntutik, garapenerako lankidetzaren plan eta politiketan iraunkortasunaren barneraketa, Euskadi mailan bereziki.	
Sektore-dimentsioa.	Ingurugiroa sektore-dimentsioan kontuan hartu behar da eta beraz, aurrekontuen zati bat ingurugiro-proiektuak babesteko erabil liteke.
Lankidetzaren deszentralizazioaren iraunkortasun-irizpideak.	Lankidetzaren deszentralizatuak euren tokiko-instituzioetan iraunkortasun-irizpideak kontuan hartzen direla bermatu behar dute, adibidez tokiko Agenda 21-n jasotakoak. Zentzu honetan, ingurugiro-politiketan eta eurak indarrean jartzeko gaitasun teknikoetan oinarritutako indartze-instituzionala bilatu behar da.

Ikerketa eta trebakuntza ekintza estrategiko gisa.	Ingurugiroarekiko lankidetza oso eta iraunkorra lortuko duten gaitasunak eta hausnarketa bilatu behar dira ikerketa eta trebakuntzaren bidez.
Eragipen politikoaren garrantzia.	Hegoalde zein Iparraldeko herrialdeetan eragipen politikoa ezinbesteko ardatza izan behar da.
Tokiko- garapen endogeno eta iraunkortasunaren arteko lotura.	Tokiko- garapen endogenoa, iraunkortasunari lotuta, ekintza-lerro funtsezkoa izango da.
Iraunkortasunaren aldagaia herrialde-politiketan kontuan hartzea.	Eragite eremu geografikoak lehenetsi eta estrategiak-herrialdeak burutzen dituzten administrazio publikoek (Eusko Jaurlaritzaren Lankidetza-Zuzendaritza, kasu) iraunkortasun ekologikoa kontuan hartu behar dute, herrialde hauen estrategia-ereduetan biltzen baitira.
Lankidetza- eta ingurugiro-departamentuen arteko lankidetza handiagoa.	Lankidetza- eta ingurugiro-departamentuen arteko lankidetza handiagoa izatea ezinbestekoa da. Hegoaldeko zein Iparraldeko eragile publiko eta pribatuen ingurugiro eta iraunkortasun gaien formazioa ere beharrezkoa litzateke.

Lankidetzaren eragileen ingurugiroaren gaineko prestakuntza.

Elkarrizketaturiko erakundeek euren kideen formakuntza nahikoa ez dela uste dute. Nabarmendu behar da Lankidetzarako Zuzendaritzaren iritzia; izan ere, Garapenerako Lankidetzaren Laguntza Funtsan aurkeztutako proiektuak aurrera eramateko egokia dela adierazi dute. Oro har, funtseko-tzat hartutako arloetan formazio handiagoa jaso da, besteak beste, generoa edo tokiko-indartze instituzionala arloetan. Euskal Fondoaren kasuan, bere ordezkariak euren formazioa handiagoa izatea gaiekiko duten sentsibilizazioagatik izan dela uste du. Interes honek eta urteetan izandako esperientziak autodidakta bihurtu ditu.

Lankidetzaren eragileei dagokionez, oro har, ingurugiroari buruzko prestakuntza falta somatzen da, Hegoaldeko eragileen kasuan handiagoa izanda. Esan genezake ingurugiroaren eta iraunkortasunaren arteko erlazioa globalki aztertua izan da, zailtasuna mikro-mailan aplikatzean datza.

Garapenerako lankidetzeta-proiektuetan iraunkortasuna kontuan hartzea.

Erakunde publikoen dirulaguntzak jasotzeko ingurugiro arloko proiektuen kopurua murrizta da, erakundeek aurkeztutako datuek hau berresten dute: *Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzeta-Zuzendaritzak aurkezturiko proiektu guztien %2a ingurugiroaren gaiaz (herri-ekonomiak eta ohiturazko jakintzak, oihantze eta ur-ibaien indartzea) dihardutela kalkulatzeko duen bitartean, Bizkaiko Foru Aldundiak gai honen inguruko proposamenik jaso ez duela baieztatzen du (2004-2008) eta Bilboko Udalak kopuru gutxia nabarmentzen du.* Datu hauek logikotzat har daitezke, erakunde hauen Plan Estrategikoetan arlo hau jasotzen ez den heinean. Haatik, Euskal Fondoaren proiektuen bilakaera azpimarra genezake, hasiera batean proiektu politiko-instituzionak burutzen bazituzten ere, egun lan joera aldatu da, oinarritzko azpiegituraz (etxebizitza, ura eta sameamendua...) diharduten lanasmoen kopurua handiagoa baita, hauetan ingurugiroaren ardatza lantzen direlarik.

Aurkeztutako proiektuek ingurugiroa zeharka aintzat nola hartzen duten galderei erreparatuz, erakunde publikoek puntu honetaz artezko ebaluaziorik egin ez dutela adierazi behar da. Honetaz, beste zeharkako ardatzak kontuan hartzea ebaluatzeko irizpide gehiago dituztela aipatzen dute (adibidez, generoaren ikuspuntuan). Lankidetzeta Zuzendaritzak G-GKE gehienek baremazio-irizpideetan arlo honi dagokionez puntuaziorik txikiena lortzen dutela adierazi du. Normalki, iraunkortasuna kontuan hartzen da ingurugiroan izandako eragina edo erosketa ekologikoen esparruetan, giza-garapen iraunkorra lortzeko lagun dezakeela baztertuz. Honek, bereziki mikro mailan, ezagutza eta formazio-eza azaleratzen du.

Aurkeztutako proiektuei dagokienez, Euskal Fondoaren eskarmentuak irizpide giza-ekonomikoa lehenesteko joera erakusten du. Hegoaldeko tokiko-gobernuen eskaerei epe laburrean erantzun behar da eta horrek, askotan, iraunkortasunaren irizpidea baztertzea dakar. Ageri da Hegoaldeko tokiko-gobernuen agendetan ingurugiroa agertzen ez dela, hortaz, lankidetzeta-lanasmotan kontuan hartzeak zailtasun handiko bidea burutzea esan nahi du, bertako gobernuekin etengabeko negoziaketa ere puposa lezakeelarik. Hala eta guztiz ere, aldagai hau kontuan har dugin egindako zenbait urrats aipatzen dituzte. Instituzio-indartzearen bitartez, giza, ekonomia eta ingurugiro-iraunkortasuna lantzen duten eta poblazioaren beharrei erantzuten dieten proiektuak eta plan estrategikoak egin dira. Oinarritzko azpiegitura-proiektuetan (etxebizitza, ura eta sameamendua...) beharrei erantzutea lehenetsia bada ere, ingurugiroarekiko iraunkorrak izan behar direla hartzen da oinarritzat. Hau dela eta, proiektuen hasieran zein amaieran ingurugiroan izandako eragina neurtzen da. Horretarako, Euskal Fondoak azterketa hau egin dezaketen erakunde publiko, enpresa eta adituekin lan egiten

du. Normalki, Euskal Fondoa erakundearen kide diren udal teknikoan aholkularitza-bulegora jotzen dute. Datu honek Iparraldeko udal erakundeek Hegoaldeko lankidetzaren iraunkortasun ekologikoa berma dezaketela erakusten du, bada.

Udal tresnen ingurugiro arlorako egokitzapenez, adibibidez dirulaguntzen eskabide-orriak, hobetu behar direla onartu da. Hala ere, idazkietan irizpideak gehitzearen kontra agertu dira, zergatik eta nola egin behar den aztertzen ez den bihartearen, behintzat. Horretaz gain, hainbatek idazkiak mugak direla ikusten dute, paper soil batean proiektu baterako beharrezkoak diren gauza guztiak bildu ezin baitira. Hortaz, arazoaren muina ez litzateke administrazio- tresnen eza, erakundeen oinarritzko planteamendua baizik. Hau dena laburbiltzearen ingurugiroaren ardatza proiektuetan kontuan hartzeko zenbait urrats azaldu dira:

7. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoek garapen-proiektuetan ingurugiroaren aldaera egoki eta zuzen hartzea kontuan.	
Proiektuen diagnostiko zein ebaluazio faseetan ingurugiroaren egoeraren gaineko ikerketa/ diagnostikoak burutzea, testuinguruetan jardueren benetako eragina ikusi ahal izateko.	Beharrezko ikerketa-maila egiten den proiektuaren arabera bada ere, hasieratik galdetu behar da ingurugiroan izango den eragina zein litzateke eta batez ere, ingurugiroaren iraunkortasunerako izan ditzakeen ekarpen positiboak. Administrazio publikoek ikerketa edota diagnostikoak burutzeko diru kantitate zehatza gorde behar dute ingurugiroarekin zuzeneko lotura duten lanasmontzat. Horrek bermatuko luke erakundeek eta kontrazatiek proiektuen proposamenak burutu izan dituztela. Administrazio publikoek jarraipena egin dezatela ere puposa tu egingo luke.
Kontrazatientzat prestakuntza eta trebakuntza.	Kontrazatientzat zein biztalegoarentzat (posible den heinean) formazio- eta trebakuntza- ikastaroak prestatu behar dira.
Erosketa publiko berdea.	Edozein proiektutan produktu eta gai ekologikoak erosten direla bermatzea.

 **Ingurugiro- lankidetz- esperientziak eta iraunkortasuna kontuan hartzen duten esperientziak.**

Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

Ingurugiro-proiektuei dagokienez, El Salvador eta Guatemalan egindako hiri-hondakinen jasoketa eta birziklapenari buruzko proiektuak azpimarratzen dira. Ez dute iraunkortasun ekologikoa zeharka sartu duen proiekturik aipatu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun eta Giza-Eskubideen Zuzendaritza

Hondakinen kudeaketaz egindako lankidetz zuzeneko lanasmok azpimarratzen dira. Zehazki, Canelones (Uruguay) probintziako gobernuarekin batera egindako proiektua nabarmenduko lukete, lanasmo hau Hondakinen Kudeaketa Zuzendari Plana buruketan laguntza teknikoa ematera zuzenduta zegoen. Kasu horretan, Foru Aldundiak hondakinen kudeaketari buruzko laguntza teknikoa eskaini zien. Positiboki baloratzen da, Aldundiko gai honen gaineko esperientziak eta ingurugiro- eta berdintasun- eta giza-eskubideen departamentuek elkarrekin lan egin izanak asko lagundu baitzuten.

Euskal Fondoak

Oinarrizko azpiegitura lantzen duten proiektuen kopurua oso handia bada ere, Nikaragua eta El Salvador-en egindako ura eta saneamendu proiektuak azpimarratuko lituzkete. Bi lanasmo hauek tokiko-beharrei erantzun eta arroen berreskuratu nahi dute. Euskal Fondoak ingurugiro-gaian adituekin (arlo publiko zein pribatu) aliantza estrategikoak ezarri dituzte, hau positibotzat hartzen delarik.

8. ONDORIO-TAULA: Administrazio publikoek egindako garapenerako lankidetzan iraunkortasunaren barneraketa bermatzeko proposamen eta gomendio nagusien laburpena.	
Ingurugiro-proiektuen sektore-dimentsioa.	Ingurugiroa bere sektore-dimentsioan hartu behar da aintzat eta beraz, lankidetzaz aurrekontuen kopuru bat gai hau lantzeko proiektuak babesteko erabili behar litzateke.
Trebakuntza eta formazioa sustatzea.	Ipar-hegoko eragileen trebakuntza eta formazioa bultzatu behar dira. Ingurugiroarekin iraunkorra den lankidetzaz osoa lortzeko ekintza estratéjiko gisa ulertu behar lirateke.
Deszentralizatutako lankidetzan ingurugiroa sartzea.	Deszentralizatutako lankidetzaz ingurugiroa kontuan hartuko dela bermatu behar du (adibidez Agenda 21).
Ingurugiroaren eraginari buruzko ikerketak babestea.	Ingurugiro-eragina aztertzeko aurrekontuen partida zehatza gorde behar da.
Administrazio publikoek euren lankidetzaz eta ingurugiro arloko arteko koordinazioa hobetu behar dute.	Tokiko-Agenda 21-en kideen espezializazio teknikoa aprobetxatu behar da lankidetzaz plan eta politiketan aldatu. Era berean, G-GKE-ek eta enpresa publikoek elkarri laguntzea ahalbideratu behar dute, azken hauek ingurugiro proiektuetan identifikazio, gauzatze eta ebaluazio fasetan lagunduko dutela.